



Motozerra

Stihl MS 200 T modeloa

Motozerra abiadura handian funtzionatzen duen ebakitze tresna bat denez eta makina arriskutsuenetako bat denez, beharrezkoa segurtasun neurri bereziak hartzea, hura erabiltzean arriskua murrizteko.

Dokumentu honen xedea da motozerrarekin lanak egiteko arauak eta jarraibideak ezartzea, segurtasunerako egokiak diren baldintzetan.

Hautapen eskakizunak

Kontuan hartu beharreko dokumentazioa:

Edukiko du:

CE adostasun adierazpena. 09/07/07

Fabrikatzailearen edo hornitzailearen erabilera eta mantentze eskuliburua, merkaturatzen den herrialdearen hizkuntzan. Ekipoa fabrikatzailearen argibide eta espezifikotasunen arabera erabili behar da.

Aldez aurreko egiaztapenak. Makinaren egoera

Motozerrak kontserbazio egoera egokienean egon behar du.

Kontuz gailua ustekabeen abiaraztearekin.

Langileak bete beharreko baldintzak

18 urtetik gorakoa izatea.

Osasun zaintzari dagokionez, lanpostuan aritzeko gaitasun agiria edukitzea. Adi egotea. Nekatuz gero, hartu atsedena. Nekeak kontrola galtzea eragin dezake. Edozein tresna motordun erabiltzea neketsua da. Nekeak areagotu dezakeen gaitzen bat izanez gero, kontsultatu medikuari, makina hau erabili baino lehen.

Prestakuntza espezifikoko egiaztatua.

Tresna erabiltzeko baimena.



Erabilera

Erabilera jarraibideak

Tresna erabiltzean, kontuan hartu behar dira BETI fabrikatzailearen erabilera eta segurtasun jarraibideak. ERANSKINA.

Saihestu ezpataren muturrak edozein objektu motarekin talka egitea. Hori gertatuz gero, ezpata bat-batean goraka eta atzeraka atera daiteke, lesio larriak edo hilgarriak eraginez.

Ez utzi edo alokatu sekula zure erreminta motorduna, jarraibideen eskuliburua entregatu gabe. Ziurtatu makina erabiltzen duten pertsona guztiek eskuliburuko informazioa irakurtzen eta ulertzen dutela.

Makina hau erabiltzea arriskutsua izan daiteke. Zerratzeko kateak ebakitzailer zorroztz asko dauzka. Ebakitzailer langilearen gorputzaren atalen bat ukitzen badute, zauri bat egingo diote, makina itzalita egon arren. Azelerazio gorenean, kateak 30 m/s-ko (67 milia/h) abiadura har dezake.

Erabili motozerra soilik zurezko objektuak ebakitzeko.

Hurbil dauden pertsoneri lesioak egiteko eta jabetzak kaltetzeko arriskua murrizteko, ez utzi sekula erreminta motorduna martxan arretarik gabe. Erabiltzen denean (esate baterako, atsedendietan), itzali eta ziurtatu baimenik gabeko pertsonak ezin dutela erabili.

Lan ingurua

Eduki lanpostua garbia eta ongi argizatua.

Lana egin oinarri sendo baten gainean, eta mantendu oreka beti. Horrela, hobeto kontrolatuko duzu erreminta ustekabe bat gertatuz gero.

Ez lan egin egoera klimatologiko desegokian (euria, elurra, etab.).

Prebentzio alderdi espezifikoak

Ez utzi makina euripean eta leku hezeetan.

Egin mantentze-lan egokia, eta egiaztatu ondo dabilela.

Ipini ondo oinak, oreka ez galtzeko.

Ez erabili erreminta atmosfera leherkorretan. Ez erabili arropa nasairik.

Norbera babesteko ekipamendua



Langileak erabili behar ditu:

Segurtasun eskularruak, eskuak ez irristatzeko eta ebaki gutxiago egiteko.

Arropa egokia eta estua, ebakiez babesteko elementuekin oin, zango, esku eta besaurretarako. Ez eraman bufandarik, gorbatarik, bitxirik, etab. Ez eraman ilea askea.

Segurtasun oinetakoak, zola irristagaitzarekin eta altzairuzko babesgarriarekin puntetan.

Kaskoa, hala behar izanez gero.

Erabili babesteko betaurrekoak edo pantaila, proiektatutako partikulak saihesteko.

Belarri babesak.

Erabili hautsaren aurkako maskara, giroan hauts asko dagoen lekuetan.



Arriskuak

Erreminta motordun bat (edo beste makina batzuk) denbora luzez erabiliz gero, langileak bibrazioak jasotzen ditu, eta horrek Raynaud fenomenoa (hatz zuriak) edo karpoko kanalaren sindromea eragin dezake.

Egoera horietan, tenperatura sentitzeko eta erregulatzeko eskuen gaitasuna gutxitzen da; txindurritzea eta erreminak sortzen dira; nerbio eta zirkulazio nahasmenduak ager daitezke; bai eta ehunen nekrosia ere.

Prebentzio mantenimendurako gida

Bete itzazu fabrikatzailearen erabilera eskuliburuan jasota dauden mantenimendu eta konponketa jarraibideak eta/edo abisuak.